

ESTATUKO ALDIZKARI OFIZIALA

126. zk.

Astelehena, 2009ko maiatzaren 25a

I. atala

43329. or.

I. XEDAPEN OROKORRAK

LEHENDAKARITZAREN MINISTERIOA

8613 *863/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 14koa, zeinen bidez Kontsumoko Arbitraje Sistema arautzen duen otsailaren 15eko 231/2008 Errege Dekretua aldatzen den.*

Kontsumoko arbitraje sistema arautzen duen otsailaren 15eko 231/2008 Errege Dekretua, kontsumitzaile eta erabiltzaileen babesa hobetzeari buruzko abenduaren 29ko 44/2006 Legearen seigarren azken xedapenean xedaturikoa betetzeko egin zen, azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuak onartzen duen Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorreko testu bateginaren 57. eta 58. artikuluetan eta beste lege osagarri batzuetan aurreikusitakoa kontuan hartuta.

Bestalde, eta Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorraren 57. artikulua eta beste lege osagarri batzuek diotenaren arabera, arauak arbitraje elektronikoa bultzatu eta sustatzeko tresna izan nahi du, epe laburrean arbitraje-batzorde guztietan modu eraginkorrean ezarriko dela ziurtatzeko asmoz, gatazkak ebazteko azkarragoak eta eraginkorragoak diren mekanismoak kontsumitzaileen eskura egon daitezzen.

Kataluniako Autonomia Erkidegoko Gobernuak, 2008ko apirilaren 22an egindako bileran hartutako akordioaren bitartez, eta Valentziako Autonomia Erkidegoko Gobernuak, 2008ko apirilaren 18an egindako bileran hartutako akordioaren bitartez, Gobernuari eskumenik eza errekeritu zioten, Konstituzio Auzitegiari buruzko urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoaren 63. artikuluan ezarritakoaren arabera, 231/2008 Errege Dekretuko 51.2 artikulua zenbait gaitan bere eskumenak urratzen dituela uste dutelako.

Eskumenik ezaren bi errekerimenduak Gobernuari haxe eskatuz gauzatzen dira: indargabetzea erabakitzea edo, sorospidez, aipatutako errege dekretuaren 51.2 artikulua (kontsumo elektronikoaren arbitrajeari buruzkoa) berriz idaztea.

Estatuko Gobernuak, gorago azaldutako errekerimenduei erantzunez, argitzen du errepikatutako konstituzioko jurisprudentziaren arabera, arbitraje-sistemaren ezarpena espainiar konstituzioaren 149.1.5. eta 6. artikuluen eskumenezko tituluek Estatuari ematen dioten eskumenari esleitutako gaia dela.

Horiek horrela, 231/2008 Errege Dekretuaren lehenengo azken xedapenean era berean biltzen diren aipatutako Estutako tituluetan oinarrituta, Gobernuari dagokio arautze hori gauzatzea, kontsumo elektronikoaren arbitraje-sistemaren eraginkortasunaren ondorioetarako autonomia-erkidegoen laguntza izateari utzi gabe, arbitrajearen eskabidetik hasi eta prozedura bukatu arte, jakinarazpenak barne, osorik baliabide elektronikoak erabilia bideratzen dena. Eta ondorio horietarako, kontsumoaren arbitrajeak, baita elektronikoak ere, Kontsumoko Arbitraje Sistema osatzen duten erakunde ezberdinek (errege dekretuko 5. artikuluen arabera administrazio publiko desberdinetara atxikitakoak) egindako jarduketak prozedura bakar batean integratu behar ditu, arbitraje-batzordeen artean elkarkomunikazioa izateko aukera emanez, aurkezten diren arbitraje indibidual edo kolektiboen eskabideak behar bezala bideratzeko asmoz.

Esandako errege dekretuaren 51. artikuluan eta hurrengoetan araututako kontsumo elektronikoen kontsumoaren arbitrajeak adierazten duen izaera espezifiko eta birtualak, aplikazioen bateragarritasun-parametroak ezartzea eskatzeaz gain, aplikazio informatiko ezberdinen funtzionamendu integratua bermatzeko beharrezkoak diren mekanismoak ezartzea eskatzen du; hala balegokio, aplikazio horiek Kontsumoko Arbitraje Sistemaren kudeaketan inplikaturako gainerako administrazio publikoek eta autonomia-erkidegoek erabil ditzaten.

Aipatutako funtzionamendu integratuak hauxe exijitzen du: administrazio publiko desberdinetara atxikitako erakundeek parte hartzen dutenean, arbitraje-eskabide bat prozedura bakar batean kudeatzeko aukera emango duten mekanismoen ezarpena.

Baina esandakoaz gain, erakundeen arbitraje gisa, kontsumo elektronikoko arbitrajeak berdintasuna –baita teknologikoa ere– ziurtatu behar du sarbidean eta prozesuan, beren gatazkak Kontsumoko Arbitraje Sistemaren eraginpean jartzea onartzen duten kontsumitzaile eta enpresaren egoitza edozein dela ere, eta kontsumoaren arbitrajea kudeatzeko eskumena duen arbitraje-batzordea dena delakoa dela ere. Hori bereziki garrantzitsua da Kontsumoko Arbitraje Sistemara atxikita egon eta Estatu osoa euren jarduera garatzen duten enpresei dagokienez, 231/2008 Errege Dekretuaren 25. artikuluan arabera, atxikitze eskaintza publikoa bakarria izango denez eta Kontsumoko Arbitraje Sistema guztiari egintzat joko delako eta; hortaz, Kontsumoko Arbitraje Batzorde guztiari.

Era berean, kontsumo elektronikoko arbitrajeak kontsumoko arbitraje-batzorde bat edo zenbaitetarako sarbidea ahalbidetzeaz gain, sistemarako sarbidea ahalbidetu behar du, batzorde horiek sisteman sartzen baitira eta kontsumitzaile edo enpresaburuek, 231/2008 Errege Dekretuaren 1.2 artikulua kontuan hartuta, haien gatazken ebazpena sistemaren eraginpean jartzen baitute.

Beraz, baliabide elektroniko bidez prozedura arbitral bat osorik bideratzeko, ez da nahikoa arbitraje-batzorde desberdinek erabilitako sistema eta aplikazio informatikoen bateragarritasuna ziurtatzea, baizik eta beharrezkoa da: batetik, Kontsumoko Arbitraje Sistemarako sarbidea ahalbidetzen duten lankidetzak-mekanismo indartuak ezartzea; bestetik, administrazio publikoetara atxikitako erakundeen jarduketan prozedura arbitral bakar batean sartzea; eta azkenik, berdintasuna egotea sarbidean eta alderdien prozesuan, euren helbidea edozein dela ere. Agerikoa da lankidetzak indartu hori ahalbidetzen duten tresna teknikoek ezarpena ezin dutela autonomia-erkidegoek alde bakarrekotzat garatu, behar bezala koordinatuta dagoen jarduketa global eta baterakoa delako, eta bere helburu bakarria ez delako informazio estatistikoa transmititzea, baizik eta kontsumo-prozedura bat “bideratzea”, hau da, prozedura hori tramitatu eta ebaztea.

Hala ere, aipatutako errekerimenduei erantzunez, Ministroen Kontseiluak 2008ko maiatzaren 23an egindako bileran, akordio bana hartu zituen. Akordio horien bidez, 231/2008 Errege Dekretuko 51.2 artikuluari idazketa berria ematea hitzeman zuten, interpretazio okerrik egon ez dadin. Eta hori, arau honen bitartez gauzatzen da, autonomia-erkidegoei dagozkien jarduketan babesa ziurtatuz.

Errege dekretu hau bideratzean, autonomia-erkidegoen iritzia kontuan hartu da Kontsumo Biltzar Sektorialaren bidez, baita Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Kontseiluaren eta enpresaburuen elkarreana ere.

Esandakoaren ondorioz, Osasun, Gizarte Politika eta Justiziazko ministroek proposatuta, aldez aurretik Gobernuako Lehen Lehendakariorde eta Lehendakarietzako ministroa denak onartuta, Estatu Kontseilua kontuan hartuta, eta Ministroen Kontseiluak 2008ko maiatzaren 14an egindako bileran eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra. *Kontsumoko Arbitraje Sistema arautzen duen otsailaren 15eko 231/2008 Errege Dekretuaren aldaketa.*

Kontsumoko Arbitraje Sistema arautzen duen otsailaren 15eko 231/2008 Errege Dekretuaren 51.2 artikulua horrela idatzita geratu da:

«2. Kontsumoko Arbitraje Batzordeak, dagozkien eraketa-hitzarmenetan idatziz jasota dagoenaren arabera, bideratuko den arbitraje elektronikoaren administraziora borondatez atxiki ahal izango dira, arau honek aurreikusten duena kontuan hartuta, haien eskumenei jarraiki dagozkien Kontsumoko Arbitraje Batzordeek antolatzen dituzten sistema elektroniko eta aplikazio teknologikoen bitartez. Sistema elektroniko eta aplikazio teknologiko horiek, Kontsumoko Arbitraje Sistemaren barruan bateragarritasuna eta informazio-trukea bermatu beharko dute.

Aurreko paragrafoan xedatutakoari kalterik egin gabe, Osasun eta Gizarte Politika Ministerioak borondatez atxikiko diren Kontsumoko Arbitraje Batzordeen eskura jarriko du arbitraje elektronikoa kudeatzeko aplikazio elektroniko bat.»

Lehenengo azken xedapena. *Eskumenezko titulua.*

Arau hau, justizia-administrazio eta legeria prozesalarekin zerikusia duten gaiei dagokionez Estatuari eskumen eskusiboak esleitzen dizkion Konstituzioko 149.1. 5. eta 6. artikuluan xedaturikoaren babespean eman da.

Bigarren azken xedapena. *Indarrean sartzea.*

Errege dekretu hau indarrean jarriko da «Estatutako Aldizkari Ofizialean» argitaratu eta hurrengo egunean.

Madrilen, 2009ko maiatzaren 14an.

JUAN CARLOS R.

Gobernuko Lehen Lehendakariorde
eta Lehendakaritzako ministroa den
MARIA TERESA FERNÁNDEZ DE LA VEGA SANZ